

AZKUE eta ARANA

Gizon bi izan ditu Bizkaia'k azken gizaldi onetan Geroago eta zenbaki berean, Azkue'k esaten Euskeraren alde, Euskadi'n geien lan egin dabenak, deusku Sabino zala: «profundo tratadista vasco». zalantza barik. Azkue'tar Resurreccion eta Arana'- ...Onek ez dau esan gura Azkue'k ontzat artzen zitar Sabin. tuenik Sabino'ren gramatika eretxi guztiak, baiña

Arek bizitza luzea izan eban, onek, ostera, oso Azkue'k ori esatea asko baiño geiago da. laburra.

Arek zientzia aldetik landu eban euskerea, onek zientzia baztertu barik, politikaren bidez, il-zorian ARGAZKIA egoan Euskerea salbatu gura izan eban, eta asko lortu ere bai.

Gizon ospetsu bi oneik, alkarren artean, zelako artu-emonak izan ebezan?

Zelako eretxia eukan batak besteari buruz?

Arana'k Azkue'ri buruzko eretxia gaurkoz utzi daigun, eta bigarren aldea orain agertu gura neuke.

Azkue Jaunak berba gitxitan, baiña zeatz eta sakon agertzen deusku Sabino zer zan eta batez ere zelakoa zan, au da Arana'ren izakera edo aiurria: «Su tenacidad ejemplar, no llegaba a la terquedad».

Nik euskeraz esango neuke: Sabino'ren gogortasun zintzoa, ez zan gogorkeria» edo «Iraunkorra bai-na ez buru-gogorra».

* * *

ERETXIA

«Morfologia Vasca» izeneko liburu mardul eta sakonean onelako au diño Azkue'k Arana dala-ta: (erderaz ipiñiko dot, bere berbak zer esan gura daben, egin-eginean ulertu daigun).

«...Arana-Goiri, para quien en conferencia publica tuve el honor de pedir una estatua por haber pro solo el, a nuestra lengua, más lectores y escritores que todos los demás vascólogos juntos» (473 zenbakian).

IRUDIAK

Azkue eta Sabino, gizon andi bi, aztutzerik ez dozue merezi.

Zuok biok emon dautsazue Euskereari, il zorian egoenari, bear eban osagarri eta indargarri.

Zergatik ez eragi

danon artean bi irudi:

Lekeitio'n Azkue Andiarri,

eta Abando'n Arana'tar Sabin'i?

GOIKOETXEA'tar Iñaki

ANDRA MARI MARTIKO

Andra Mari Martiko
arraia barriak tatiko;
tatiko ta matiko,
aizez ez naiz biziko.

Eguna gangar, arro,
urak uiol kolore;
euri ta eguzkizko
ezbaidun zeru-arte.

Kaioek mindurati
ta, ozen, ar ta eme,
arkaitzetan urduri
txilioka ari dire.

So nago ortziari,
odeiteri baltzari;
so txorien deiari,
goizari, egunari...

Osertzak illun-arre
ta, ugiñak erre-min;
barruan dot oñaze
ikuspegi baltzakin.

Itsasoa illuna,
gogoa illunago;
ail, aberri kutuna,
kezkaz beterik nago.

Neuregazko ibilliz
astindurik egoa,
amets batek naroa
biotzeko Euskalerriz.

Nago eta banao
neure munduz barrena,
goituz neure arrena
Maite-Otoitz Beroal

MUNIATEGI-tar Sabin